



EREÑOTZUKO AFORALEKUAREN BERRIKUNTZA (HERNANI)

RENOVACIÓN DE LA ESTACIÓN DE AFOROS DE EREÑOTZU (HERNANI)





EREÑOTZUKO AFORALEKUAREN BERRIKUNTZA (HERNANI)

- 1. dokumentua: MEMORIA
- 2. dokumentua: PLANOAK
- 3. dokumentua: PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA
- 4. dokumentua: AURREKONTUA



1. DOKUMENTUA

MEMORIA



MEMORIA

AURKIBIDEA:

1. AURREKARIAK, PROIEKTUAREN OBJEKTUA ETA HARTUTAKO IRTENBIDEAREN JUSTIFIKAZIOA	1
2. OBREN DESKRIBAPENA.....	1
3. SARBIDEA.....	4
4. LANAK EGITEKO EPEA ETA BERMEAREN EPEA.....	4
5. PROIEKTUAREN AURKIBIDEA.....	4
6. AURREKONTUA.....	6



1. AURREKARIAK, PROIEKTUAREN OBJEKTUA ETA HARTUTAKO IRTENBIDEAREN JUSTIFIKAZIOA

Gipuzkoako ur emaria eta kalitatea neurtzeko sarea hobetzeko eta modernizatzeko Plan Gidariaren aurreproiektu bat egin da. Bertan, Gipuzkoako aforalekuen azterketa bat egin da, azpiegiturak hobetzeko beharra zehaztu ahal izateko.

Ereñotzuko aforalekua (Hernani) 1992az geroztik dago martxan, eta gainezkabidea 2001ean berritu zen. Eraberritze horretan, lasaitze hobiaren zati bat beheratu zen, eta, ondorioz, sarritan lohiz betetzen da. Gainera, etxolak pitzadura handiak ditu, eta horrek eraikinaren egoeraren berrikuspen orokorra egitera behartu du. Bestalde, inguruko espaloiak asentatu bat izan du, gaizki egindako betelanean ondorioz. Halaber, aforalekura iristeko dagoen ubide gaineko pasabidearen barandak eta atea ordeztuko dira, eta aforalekua edateko urez hornituko da.

Proiektu honen objektua da beharrezkoak diren obrak zehaztea, batetik, ibaiaren eskuinaldean dagoen aforalekuko etxola eta urbanizazioa berritzeko eta, bestetik, ibaiaren ezkerrekoa ere egokitzeko.

Kontuan izan behar da obraren zatirik handiena kokatzen dela ibaiaren eskuinaldean dagoen etxolan eta haren urbanizazioan; hala ere, beharrezkoa izango da ezkerreko pasatzea ibaian barrena, tornuaren profilaren inguruko eremua berriz urbanizatzeko eta hormak egokitzeko. Etxolaren eremura GI-3410 errepidetik iristen da, eta ezkerreko ertzera, berriz, ibaia zeharkatuz.

2. OBREN DESKRIBAPENA

Hauek dira egin beharreko obrak:

- Etxolaren barnealdea eta kanpoaldea berritzea.
- Ibaiaren eskuinaldeko urbanizazioa berritzea.
- Etxola edateko urez hornitzea.
- Ibaiaren ezkerrekoa egokitzea.

Aforalekuaren etxolak hainbat pitzadura ditu, hormigoizko egiturarako garrantzitsuak ez direnak, baina konpondu egin beharko dira.



Etxolaren inguruko espaloia hondoratu egin da, aurretik gaizki egindako betelanen ondorioz. Dagoen espaloia pikatu beharko da, betelanak behar bezala egiteko eta espaloi berri bat egiteko, lehendik dagoena kopiatuz.

Edateko urez hornituko da aforalekua, Ereñotzun dagoen sarearen bidez. Horretarako, 63 mm-ko polietilenoazko hodi bat jarriko da, sareko puntu batean hasi eta kanala paraleloki jarraituz. Hodi hori ubidearen gaineko pasabideari atxikiko zaio metalezko babes eta ainguraketarekin, eta, ondoren, etxolara sartuko da. Gainera, ponpatik etxolarako ur-hodia berrituko da.

Egungo teilazko estalkia kendu eta zeramikazko teila kurboak jarriko dira zementuzko morteroz egindako erregularizazio geruza baten gainean. Gainera, ibaiaren aldeko hegala handitu egingo da, eurien aurrean babes handiagoa emateko.

Iberdrolaren zutoina lekuz aldatuko da, eta planoetan definituta geratuko da; kanalizazio berri bat egingo da etxolaraino eta oinarri bat jarriko da, haren gainean dagokion armairua jartzeko.

Etxolan jarriko den HEB-300 profilak 3,25 m-ko luzera du, eta dagoen profilaren aurretik jarriko da. Profil hori bi puntutan ainguratuta egongo da. Oinarria etxolaren lauzan bermatuta dago. Aurrez, berme eremuan, harlauzaren zoladura eta hormigoia zati bat pikatuko da, elementu horien armadura bistan utzi arte. Profilaren goialdea estalkiaren harlauzan ainguratzen da. Bi ainguraketa horiek profilera soldatutako metalezko plaken bidez egingo dira, eta hormigoirako metalezko ainguraketak erabiliko dira. Pieza tailerrean erabat osatuta etorriko da, eta obran ebaketarik edo soldadurarik egitea saihestuko da.

Etorkizuneko tornuko kableak ateratzeko, aforalekutik ibaiaren ezker aldeko euskarriraino, beste leiho bat egitea proposatu da, 1,80 m inguruko altuera eta 1,00 m zabal izango duen aluminiozko arotzeriakoa, bertan dagoen leihoaren neurriak kopiatuta, eta ezkerreko fatxadan, kableen pasagunean, kautxuzko plaka elastikoa eramango du. Gainera, etxolaren sarrerako atearen orde bestea jarriko da, lehendik dagoenaren neurri berekoa, eta pareko horma sareta bikoitz bat jarriko da, etxolaren barruan aireztapena errazteko.

2001ean aforalekuan egindako eraberritzean, lasaitze hobia beheratu zen, baina ez hustubidea, eta, beraz, goragoko maila batean geratu zen, eta sarritan lohiz betetzen da. Ibaiarekiko komunikazioa lohiz bete ez dadin, hodi bat sartuko da orain dagoen komunikazioaren barrutik eta aire-konpresoreari konektatuko zaio etxolan. Konpresore horrek, aldian-aldian, presiozko airez garbituko du ibaiarekiko komunikazio-puntua. Gainera, ixteko balbula bat instalatuko da lehendik dagoen hodian, lasaitze hobia garbiketa eta mantentze lanak errazteko.



Erremate gisa, zoladura irristagaitz bat jarriko da etxola osoan, saneatu eta margotu egingo da barrutik zein kanpotik, eta azulejuak jarriko dira etxolaren barruan, kalitateko instalazioen aurrealdean. Gainera, hobietako baten sarreran, sistema bat instalatuko da bertara segurtasun handiagoz sartu ahal izateko.

Ibaian dagoen sestra-zunda birkokatuko da, kablea baranda berri baten barrutik pasata erregistroko kutxa berri batera iritsi arte. Kutxa hori baranda zati berrira soldatuko da, eta, ondoren, kablea baranda-hodi beretik jaitsiko da berriro, eta hormigoizko inpostatik sartuko da etxolan. Horrez gain, erregistro txiki bat egingo da inpostan, zundaren kablera iritsi ahal izateko.

Alde horretan dauden barandak desugertu eta berriro margotuko dira, lan eremuaren luzeran zokaloak jarriko dira, eta ibaira sartzeko ate bikoitz berriak jarriko dira. Eremu horietan, ibaira jaisteko orain dauden pateak kenduko dira, ibilguko hormari itsatsitako hormigoizko ostikoak egingo dira, eta pate berriak jarriko dira.

Ibaiaren ezkeraldera iristeko eta ibilguko hormetan nahiz gainezkabidearen konponketan egin beharreko obrak burutzeko, lurrak mugitzeko beharrezko makineria erabiliko da atagiak eta sarbidea bermatzeko beste sistema batzuk egiteko.

Ibaiaren alde horretan, halaber, lehendik zeuden pateak kenduko dira, eta pate berriak jarriko dira ibilguko hormari atxikitako hormigoizko ostiko baten gainean, baita erorikoen aurkako segurtasun-sistema duen errail bat ere. Hormigoizko plataforma bat ere sortuko da eremu horretan, behar bezala lehorreratzeko. Era berean, lurra egokitu eta hormigoizko sareta bat jarriko da, tornuaren profilaren eremua eta hormigoizko plataforma lotuko dituen. Halaber, egungo profilaren ingurua hormigoiz egokituko da, beste plataforma bat sortuko da haren mantentze-lanak errazteko, eta profilean ainguraketa puntu batzuk jarriko dira, segurtasun handiagoa izateko. Profila material bereko pletina batzuekin indartuko da, eta, era berean, dagoen zapata hormigoiz nahikoarekin osatuko da, tornu berriaren tentsioen aurrean egonkortasuna ziurtatzeko.

Gainera, pate berrien eremuan, sartzeko atea duen PRFVko baranda bat instalatuko da, eta PRFVko tramex bat by-passeko kutxatilan, dena planoetan zehaztuta. By-passaren kutxatilaren barruan sistema bat jarriko da, segurtasun handiagoz jaitsi ahal izateko.

Egitura berri guztiak lehendik dagoen egiturari lotuko zaizkio hurrengo prozesuaren bidez. Lehenik, eremua pikatu eta saneatuko da, eta, ondoren, Sikadur-32 Fix geruza edo antzekoa aplikatuko da, lotura-kontaktu egokia sortzeko. Ondoren, hormak lotzekoak diren 16 mm-ko



hagaxka metalikoekin ainguraketa batzuk egingo dira, 20 cm-tik behin erretxinekin jarrita, eta hormigoi berrian txertatuta geratuko dira.

Azkenik, gainezkabidean kaltetutako eremuak konponduko dira, eta ibaiaren ibilguko hormak garbitu eta lehengoratuko dira.

3. SARBIDEA

Ibaiaren eskuinaldean dagoen aforalekura GI-3410 errepidetik iritsiko da, eta ezkerraldeko ertzera, berriz, ibaia zeharkatuz.

4. LANAK EGITEKO EPEA ETA BERMEAREN EPEA

Obra guztiak egiteko aurreikusitako epea LAU (4) HILABETEKOA izango da.

Berme epea URTEBETEKOA (1) izatea komenigarritzat jotzen da.

5. PROIEKTUAREN AURKIBIDEA

Proiektu honek dokumentu hauek ditu:

1. dokumentua: MEMORIA

1. Aurrekariak, proiektuaren objektua eta hartutako irtenbidearen deskribapena
 2. Obren deskribapena
 3. Sarbidea
 4. Lanak egiteko epea eta bermearen epea
 5. Proiektuaren aurkibidea
 6. Aurrekontua
1. ERANSKINA. Segurtasuneko eta osasuneko oinarritzko azterlana.
 2. ERANSKINA. Hondakinen kudeaketa.
 3. ERANSKINA. Prezioen justifikazioa.
 4. ERANSKINA. Ingurumen Inpaktoaren azterketa.



2. dokumentua: PLANOAK

1. Kokapen planoak.
2. Egungo egoeraren oinplanoak.
- 3.1. Aurkezpen planoak.
- 3.2. Jarduketan oinplanoak.
4. Etxolaren egungo egoera.
- 5.1. Etxolako jarduketak.
- 5.2. Etxolako jarduketak. Profilaren xehetasuna.
- 5.3. Etxolako jarduketak. Hobi hezearen xehetasuna.
- 6.1. Xehetasunak.
- 6.2. Xehetasunak.

3. dokumentua: PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA

4. dokumentua: AURREKONTUA

- 1.- Neurketak.
- 2.- Prezioen 1. taula.
- 3.- Prezioen 2. taula.
- 4.- Aurrekontua.



6. AURREKONTUA

Ereñotzuko (Hernani) aforalekuaren berrikuntza proiektua kontrata bidez egiteko aurrekontua (BEZa barne) ehun eta berrogeita hamabost mila eta berrogeita lau euro eta berrogeita hamaika zentimokoa da (155.044,51 €).

Donostia, 2020ko apirila

Sin.: Yune García Ancín

Ingeniari Zibila

Sin: Felipe Álvarez Rodríguez

Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniaria